

Artikutzako ttantak



1

Zenbakia
2011ko Udaberria - Uda

Telefona: 690 720 264
(Asteleneetik ostiralera, 10:00 - 16: 00)
www.donostia-artikutza.org
artikutza@donostia.org



Artikibidea

ELKARRIZKETA

Jose Manuel Lekuona..... 2

HARITIK TIRA

“Artikutzako Ttanttak” zuekin..... 5

ARTIKUTZA IRUDITAN

Barrutiaren mapa..... 6-7

BARRU - BARRUTIK

Artikutza? Bai, entzuna daukat!..... 8

BILDUMARAKO

Soldanella villosa..... 9

ARGAZKI GALERIA



Elkarrizketa

Jose Manuel Lekuona mikologoari elkarrizketa

Jose Manuel Lekuona perretxikozale amorratua izateaz gain, mikologian aditua da. Saskia hartuta menditik ikusiko duzu agian, baina saskian daramana ez du labeaz, zartaginean edo tortillan prestatzeko hartu. Onddoak ikertu egiten ditu, sailkatu eta Aranzadiko bilduman gorde. 30 urte daramatza onddoak ikertzen, eta hain modan dagoen erabilera gastronomikoaren gaitetik, onddoek basoetan duten funtzio garrantzitsua azpimarratzea gustatzen zaio.

Urtero Artikutzan berarekin ibilbide gidatua egiteko aukera izaten dugu, onddo eta perretxikoen mundu hori hobeto ezagutzeko. Aurten goan elkarrizketa hau egin diogu:

Nola sartu zitzaizun onddoen mundu hau ikertzeko zaletasuna?

Oso txikitatik gurasoengandik ikasi nuen perretxikoak biltzea, baina garai hartan dozena erdi bat mota baina gehiago ez ziren biltzen, hau da xixahoriak, onddoak, gibelurdinak, kuletoak eta udaberriko xixak. Geroago nahiko gaztea nintzela entzun nuen Aranzadi izeneko elkarte bat zegoela Donostian, perretxikoak ikertzen zituena eta beraiengana hurbildu nintzen, hala, beraiekin eman nituen lehenengo pausoak.

Basora ateratzen zarenean zeri erreparatzen diozu batik bat?

Lehenengo aztertu beharreko gauza, zer mota-tako basoan zauden da, perretxikoen zatiketa handi bat egiten da hostozabaleko basoetatik koniferoen basoetara. Hostozabaleko basoetan garrantzi handikoa da zuhaitzak ondo ezagutzea, haritzak, pagoak, gaztainondoak, urkiak, sahatsak eta abar. Koniferoetan berdina gertatzen da, ez baita berdina pinua, izeia edo alertzea izan, bakoitzak bere mota bereziak dituztelako, nahiz eta mota batzuk arruntak izan edozein motatako zuhaitzetan.

Zeri erreparatu behar zaio onddo mota bat identifikatzeko?

Onddo edo perretxiko bat identifikatzeko ahal den ezaugarri gehienak kontutan hartu behar ditugu, lehenik, aurreko atalean aipatutako bizilekua, ondoren perretxiko beraren ezaugarriak, tamaina edo neurriak, formak, himenioa garrantzi handikoa da, orriduna, poroduna, hidnoidea edo laua daukan, koloreak garrantzi handikoak dira, iraunkorak ala aldakorak diren, aldakorren kasuan zer koloretara aldatzen diren, gorria, urdina, beltza.... Usainak ere ematen dituzte bereizteko ezaugarriak, batzuk aipatzekotan irin usaina dutenak, anisa, patata gordina, arbia, sardina-zaharra edo arraina, eta usain txarra daukatenak.

Zein tokitan topa daitezke onddoak?

Onddoak nahiz eta gehien bat basoetan ateratzen diren, beste bizileku ugari dauzkate, bizkarroiak edo parasitoak direnak mota dezentente daude, beste ondoren batetik sortzen direnak, animalien gorzetan saprofitoak diren mota ugari aurkitu genitzake, zomorroetan, animalien hezur edo adarretan, barazkietan, eta pertsonetan ere.

Eta zergatik da Artikutza toki aproposa onddoentzat?

Artikutzak nire ustez bi ezaugarri berezi ditu perretxikoentzako:

Lehenengoa zuhaitz mota askotako basoak dituelako eta gainera eroritako zuhaitz guztien egurra bertan usteltzen uzten delako, hori denok dakigun bezala, altxor ezinbestekoa da perretxiko mota asko eta ugari ateratzeko.

Bigarrenik Penintsulako euririk gehiena egiten duen lurraldea delako eta esan beharrik ez dago perretxikoak ateratzeko beste zenbait elementuz gain hezetasuna dutela behar beharrezkoa.

Artikutzan zein onddo mota da ugariena?

Lehen aipatutako zuhaitz mota askotako basoa izanik, egur hil edo ustelduetan ateratzen diren motak ugariena direla esango nuke, nahiz eta lurretik ateratzen diren onddo, gibelurdin edo ziza horiei garrantzirik kendu gabe.

Azken urteetan onddo kopurua jaitsi dela esango zenuke? Eta onddo espezie kopurua? Eta Artikutzan?

Nik ez daukat zalantzarik azken hamar edo hamabi urte hauetan perretxikoek ematen ari diren jaitsiera nabaritzen ari garela, esango nuke mendira joaten garenean eta zerrenda egiterako garaian askoz mota gutxiago aurkitzen ditugula eta mota edo espezie bakoitzeko ale kopurua askoz gutxiago.



Fomes fomentarius

Artikutzan ere eragina antzekoa dela esango nuke.

Zenbat onddo mota ezberdintzera iritsi zara?

Nik pertsonalki 1.500 bat mota desberdinen argazkiak ateratzeko aukera izan dut, eta beste mota mordo bat oso txikiak direlako edo momentu horretan argazki kamararik eskura ez nuelako argazkirik gabe sailkatuak.

Zein ondorio atera duzu hainbeste urte perretxikoak ikertzen aritu ondoren?

Lehenengo nire satisfazio pertsonala, bizimoduko zenbait momentu zailetan arazoak ahaztu eta perretxikoen mundu zoragarrian sartu eta indarberriturik ateratzen zarelako bertatik, eta bigarren Aranzadi zientzi elkarteari aportatu izana 30 urte hauetan aurkitutako material guztia.

Perretxiko jangarriak bilatzen ditu jendeak, baina zein beste funtzio dute onddoek?

Kontutan harturik zenbat mota perretxiko izan genitzakeen Euskal Herrian oso mota gutxi dira jangarriak, beraz mota gehienak ekosistema mantentzeko beharrezkoak ditugu, beren mizelioen bidez sinbiosi batean landareen sustraietatik jasotzen dutelako zuhaitzak beraiantzat onuragarri diren elikagaiak. Bestalde onddoak eragin handia dute basoetako egur hila eta hostoak usteltzen eta desegiten.



Amanita muscaria

Zein da ezagutzen duzun onddorik bitxiena?

Bitxiena edo zientifikoki niretzat garrantzi handiena duena Oielekun aurkitutako *Ossicaulis lachnopus*, bera baita Iberiar Penintsulan azaldutako ale bakarra.

Onddo bilketa erregulatu beharko litzatekeela uste al duzu? Zer egin daiteke?

Bai, ni erregulazioaren alde azaldu naiz askotan, badakit gaia oso konplexua dela baina nik eskatuko nuke basoa eta perretxikoak babestuko duen erregulazio orokor bat, eta ez gaur egun probintzi edo lurralde bakoitzak dituzten erregulazio desberdinak.

Zein da gure inguruan dagoen onddorik pozoitsuena?

Zalantzarik gabe esan genezake Amanita phalloides dela perretxikorik arriskitsuena gure artean, bera izan baita heriotz kopuru gehiena sortu duena.

Zer egin behar da onddo intoxikazio baten aurrean?


Ahalik eta azkarren inguruan duen erietxe edo klinikaren batera hurbildu, eta perretxikoak jan dituela adierazi, komenigarria izaten da kasu hauetan jan duen perretxiko motaren zati bat gordetzea, ondoren mikologo baten bidez aztertzeke zer mota pozoitsu jan duen eta horren arabera sendagileak bere tratamendua ezartzeke.

Zein aholku emango zenioke basora onddo bila ateratzen den bati?

Lehenik bakarrik mendira ez ateratzea, edozein istripu txikia izanik aldamenen lagunen bat badauka laguntza handia izango duelako. Eta bestetik ezagutzen dituzten perretxikoak bakarrik hartzeke eta neurrian.

*Scleroderma citrinum*

Argazkiak: Jose Manuel Lekuona

*Ossicaulis lachnopus*

aririk tira

"Artikutzako ttantak" zuekin

"Artikutzako ttantak" zurekin harreman estuagoa izateko asmoarekin jaiotako buletina da. Informazioa eskaintzeaz gain, zuen iritziak, eskaerak eta interesak bildu nahi ditugunez, zuk ere txoko bat izango duzu buletin honetan, zure zain gaude!

Oraingoz urtean 2 ale argitaratuko dira. Bertan, garaiko erreportajeak, berriak (izandako bisitak, bitxikeriak, datu meteorologikoak ...), elkarrizketak, flora, fauna edota elementu etnografikoen bilduma fitxak, Artikutza barru-barrutik ezagutzen dutenen txokoa, mapak, ibilaldien fitxak, zuek bidalitako argazkien galeria eta zuk bezalako irakurleek proposatutakoa ikusgai izango dituzu. Buletin hau argitaratzeaz gain Artikutza Natura zerbitzuak barrutia ezagutzeko ibilbide ezberdinak antolatzen ditu.

ZURE KASA

Zure kasa. Seinaleztatuta dauden 3 ibilbide dituzu eta web orrian horiei buruzko mapa eta informazioa daukazu. www.donostia-artikutza.org
Motordun ibilgailuz sartzeko baimenak:
Donostiako udala 943 48 10 00
Barrutira sartzeko ordutegia: 8:00-20:00


GUK ANTOLATUTAKO IBILALDIETARA ETORRI


Hilabeteko bi igandetan programatzen dira, martxotik abendura bitartean eta horretarako aurretik izena eman behar duzu : astelehenetik ostiralera 10:00etatik 16:00etara 690 720 264 telefonoan edo, artikutzanatura@donostia.org edo www.donostia-artikutza.org

Prezioak:

- 6 urtetik behera: dohain
- 6-17 urtera: 1,5€
- 17 urtetik gora: 2,5€

Denboraldi honetako programatutako ibilbideak ikusi nahi badituzu: klikatu gure web orria: www.donostia-artikutza.org

ZUK AUKERATZEN DUZU EGUNA ETA IBILALDIA




bilduma fitxa

Soldanella villosa

Landare hau endemismo Euskal-Kantauriarra da, hau da, modu naturalean soilik Bizkaiko golkoaren kostaldeko lurraldeetan aurki dezakegu. Bitxia da eta horregatik dago legez babestuta (Habitat zuzenbidea/92). Europako espezieen zerrenda gorrian ere ageri da kaltebera moduan. Guk, Artikutza Natura zerbitzuaren irudi bihurtu dugu eta horregatik ikusiko duzu bere marrazkia ibilaldi gidatuetako liburuxketan, natur eskolako materialetan...

Soldanellari ez zaio beste izenik eman, ez du izen arruntik, seguru aski horren berezia delako eta leku gutxi bakar batzuetan ageri delako; beraz, izen zientifikoa erabili behar dugu izendatzeko: *Soldanella* (generoa) eta *villosa* (espezia). *Soldanella* gehiago badago munduan, guztira 15 espezie dira eta denak oso antzekoak. Primulazeoen familiakoak dira (San Jose lorearen familia berekoa).



www.euskadi.net



Bizitzeko behar beharrezkoa du ur garden eta garbien jario jarraitua izatea. Ondorioz, kalitate oneko uren bio adierazlea da.

Hezetasun handiko zonaldeetan bizi da, zokoratutako erreka itzaltsuen ertzetan eta lur silizeoen gainean.

"villosa" izena, dituen iletxo mikroskopioetatik dator.

Apirila-maiatza bitartean loratzen ikus dezakezu, baina adi ibili, egun gutxi batzuk besterik ez baititu ematen egoera horretan.

Borobil formako hosto iraunkorrak ditu.

Argazkia: Jesús María Rubio



arru- barrutik

Artikutza? Bai entzuna daukat!


Entzuna izango duzu ziurrenik Artikutzari buruz zerbait: abuztuaren 28ko festa eguna, Penintsulako tokirik hezeenetariko delako, eta Donostiako Udalaren jabetgo bat izanik Nafarroako lurretan dagoela, Goizuetan zehazki. Baina zerk bultzatzen duen Donostiako udala barruti hau 1919. urtean erostera? Zalantzarik gabe, garai haietan entengabe hazten ari zen Donostiako populazioa kalitatezko urarekin hornitzeko beharrak. Kalitate hori bermatzeko neurri zorrotzak ezarri ziren gainera: sarrera mugatua, (iristeko errepide bakarra Oiartzundik gora da) ganadurik ez, ehiza eta arrantzaren debekua, ... Horrez gain, uraren purutasuna ziurtatzeko basoek duten eragina kontuan harturik, hauek kontserbatzeko indar berezia jarri zen. Hori dela eta gaur egun baso aberatsak aurki ditzakegu bertan: pagadiak, hariztiak, haltzadiak ... horietako batzuk birlandaketen ondorioz berreskuratutakoak dira, izan ere, Udalak finka erosi aurretik egondako jabeek bertako basoetan egindako ustiapenek (ikazkintza, burdingintza, egurgintza, meatzaritza...) higadura maila handiko lurra utzi baitzituzten eta haritz amerikarrak, izeiak eta hazkuntza azkarreko bestelako espezie exotiko batzuk landatu zituzten, poliki-poliki bertako espezieengatik aldatzen ari direnak.

3700 ha.ko barruti honen kudeaketarako hartutako erabakiak, Artikutza leku natural, misteriotsu eta ia magiko bilakatu dute, naturaz eta historiaz betetako altxorra.

Hau dela eta, Europar Batasunean biodibertsitatearen galera geldiarazteko osatu den Natura 2000 sarean sartuta dago, Garrantzi Bereziko Tokia (LIC) izendatu baitzuten 2004ko abenduan. Zergatik? Artikutzan pagadi zabalak, erreka eta haltzadi interesgarriak, zuhaitz zahar eta hildako kopuru handiak eta desagertzeko arriskuan dauden hainbat flora eta fauna espezie aurki daitezkeelako.

Baina kontserbazioa eta erabilera publikoak ez dute zertan kontrakoak izan behar. Artikutzako basoak, historiaurreko aztarnak, bertako lasaitasuna eta paisai ederrak mantendu ahal dira ondorengoek ere altxor honetaz gozatzeko aukera izan dezaten bertaratzen den bisitariaren kontzientziak eta inplikazioa izanik.

Hau da buletin honen xedea, [Artikutza ezagutzuz, denok maitatu eta babestea.](#)



argazki galeria

Artikutzan atera duzun argazki polit edo bitxi bat hemen argitaratua ikusi nahi baduzu, bidali helbide honetara: artikutzanatura@donostia.org. Argazkiarekin batera zure izen-abizenak, ateratako lekua-zen izena, data eta argazkiaren izenburua jar itzazu.




Izenburua: Erica cinerea
Tokia: Irumugarrieta
Egilea: Ander Letemendia



Izenburua: Baso igelgorria
Tokia: Artikutza
Egilea: Iñaki Uranga



Izenburua: Udazkeneko basoa
Tokia: Artikutza
Egilea: Jesús Rubio



Izenburua: Pagolletako mugarria
Tokia: Pagolleta
Egilea: Jesús Rubio

Artikutzako Ttanttak buletina jaso nahi baduzu bidali zure datuak (Izen abizenak, helbide elektronikoa) artikutzanatura@donostia.org helbidera eta posta elektroniko bidez jasoko duzu.

